

PROIEKTUAREN OBRAK KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA

ORDIZIA

RENOV. RED ABAST. LINEA REMAR

1.	KONTRATUAREN XEDEA	2
2.	DOKUMENTAZIOA	2
3.	AURREKONTUA.....	3
4.	GAITASUN EKONOMIKO NAHIKOA.....	3
5.	ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA	3
6.	PLAZO DE EJECUCIÓN.....	3
7.	PROPOSAMENAK AURKEZTEA	4
8.	LIZITAZIO PROZEDURA IREKIAN PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA, EPEA ETA MODUA	4
9.	PROPOSAMENAK IREKITZEA	7
10.	KONTRATUAREN ESLEIPENA.....	7
11.	BERMEAREN ERAKETA.....	7
12.	KONTRATUA FORMALIZATZEA.....	8
13.	ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINEN ARLOKO BETEBEHARRAK	8
14.	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDITASUNERAKO BALDINTZAK	8
15.	SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA EGITEA	8
16.	ARRISKUA ETA MENTURA	9
17.	ASEGURUAK.....	9
18.	OBRA ZUINKETA EGIAZTATZEA.....	10
19.	LAN PROGRAMA	10
20.	KONTRATUTIK ERATORRITAKO ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.....	11
21.	AZPIKONTRATAZIOA ETA KONTRATU LAGAPEN.....	13
22.	KONTRATISTARI EGINDAKO ORDAINKETAK.....	13
23.	ESLEIPENDUNAREN EZ BETETZEAK.....	14
24.	KONTRATUAREN ALDAKETAK	14
25.	PREZIOEN BERRIKUSPENA.....	15
26.	PREZIOAK	15
27.	OBREN HARTZEA.....	15
28.	AZKEN ZIURTAPENA.....	15
29.	BERME EPEA	16
30.	OBREN LIKIDAZIOA	16
31.	BERMEA ITZULTZEA	17
32.	EZKUTUKO AKATSEN ERANTZUKIZUNA.....	17
33.	JURISDIKZIO ESKUDUNA ETA LEGE-EREMUA	17
34.	KLAUSULA. Datu pertsonalen babesa.....	18

1. KONTRATUAREN XEDEA

Proiektu honen xedea, Remar andeleko jaitsiera linea berritzeko burutu beharreko jarduketak definitzea da. Beste lanen artean, iragazkien instalazioa, emari neurgailu berriak, prezio murriztaileak zein egungo sareen sinplifikatzea definitzen da.

2. DOKUMENTAZIOA

2.1. KONTRATU DOKUMENTUAK

Proiektuan jasota dauden dokumentu hauek kontratuzkoak dira:

Baldintza ekonomiko-administratiboen agiria

Baldintza teknikoen agiria

1_MEMORIA_

1 ERANSKINA_OINARRIZKO SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA

2 ERANSKINA_ERASANDAKO ZERBITZUAK

3 ERANSKINA_HONDAKINEN KUDEAKETA AZTERLANA

2_PLANOAK

3_PPTP

AT 2020- 8 ARG Eusk.pdf

RT 2020- EDIC 8ª cast.pdf

4_AURREKONTUA

Prezio_Oinarria_GUK

2.2. KONTRATUAREN BALDINTZA BEREZIAK

A. HOMOLOGAZIOARI eta HITZARMENEI buruz:

Behin betiko esleipena egin baino aurretik, kontratista homologatu egin beharko da, GUSAREN irizpideen arabera, honako gai hauei buruzko konpromiso-gutuna formalizatu beharko da:

- **LANGILEEN PRESTAKUNTZA.**
- Indarrean dagoen **Gipuzkoako ERAIKUNTZA ETA OBRA PUBLIKOEN HITZARMEN KOLEKTIBOA** betetzea.
- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako** otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta **Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako** martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak betetzea.
- Obra amaitu arte, honen lizitazio, esleipen eta exekuzio prozesuarekin lotu daitezkeen datu eratorri guztiekiko **GARDENTASUN INSTITUZIONALA**.

B. ORDAINKETEI buruz:

Obra-unitateak osorik egin ondoren, formalizatutako neurketen arabera ordainduko dira, esleipen-prezioaren arabera.

Proiektuan aurreikusi gabeko unitate-kontzeptuetarako, eta hala badagokio, GUSAREN obretarako eskuragarri dagoen "prezioen oinarrian" daudenak lizitatutako esleipen-bajarekin aplikatuko dira, bestela, USTEKABE eta KONTZEPTU BERRIEN kasuan, modu kontraesan-korrean eta negoziatuta zehaztuko da exekutatu aurretik.

Ordainketa, gauzatutako obraren hileko ziurtapen partzialen bidez egingo da, likidaziorako aurreikusitako likidazio-zenbatekoaren %30etik gorako zenbatekoa utziz.

C. EPEEI buruz:

Obrak esleipena jakinarazi eta 30 egun naturaleko epean hasiko dira, eta eskaintzan erabakitako exekuzio-epareen barruan amaituko dira. Epea betetzen ez bada, zigor ekonomikoa ezarriko da, eta geroagoko esleipenetan kontuan hartuko da.

D. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI buruz:

Segurtasun Planean eta aplikatu beharreko ARAUDIETAN jasotako neurriak betetzen direla zaindu beharko da, eta, bereziki, honako hauetan adierazitakoa:

- Obra bakoitzaren jarraipen CHECK-LISTA. (Helburuak ez betetzeagatik zigor ekonomikoarekin)
- KOORDINATUren aplikagarritasuna obra egiten duten langileei.

E. EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI buruz:

Kontratatik Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu.

F. HONDAKINEN KUDEAKETARI buruz:

Dagokion araudi aplikagarrian jasotako neurriak betetzen direla zaindu beharko da, bereziki honako hauetan adierazitakoa:

- Obra bakoitzaren jarraipen CHECK-LISTA.

Kontratu hau sinatzeak esleipendunak bere baldintzak eta harekin batera doazen gainerrako dokumentuak onartzea dakar.

3. AURREKONTUA

Obren guztizko aurrekontua **96.060,90** €-koa da. Aipaturiko prezio horretan kontzeptu guztiak barneratzen direla ulertzen da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga IZAN EZIK.

4. GAITASUN EKONOMIKO NAHIKOA

Gipuzkoako Urak nahikoa ahalmen ekonomiko du dagokion gastua bere gain hartzeko.

5. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu prozedura ireki bidez esleituko zaio Plegu honetan eskaintzak baloratzeko aurreikusitako irizpideen arabera ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkezten duen lizitatuileari.

6. PLAZO DE EJECUCIÓN

Obren exekuziorako **8** ASTEKO guztizko epe bat finkatzen da.

Zuinketa egiaztatzeko aktan finkatzen den egunetik aurrera hasiko da epea.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era be-rean, ezingo da aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu. Arau horiek urratuz gero, ez dira onartuko berak izenpetutako proposamen guztiak, ez eta berorietan parte hartzen dute-nak ere.

Kontratuaren lizitazioari dagokien eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte, aurrerago zehazten den moduan, jarduteko gaitasun osoa duten eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzen duten pertsona natural edo juridikoek, baldin eta Adminis-trazioarekin kontratatzeko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan ezarritako debekuetan sartuta ez badaude.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du, lizitzaileak agiri honetako klausulak eta gainera-ko kontratu-dokumentuak, inolako salbuespenik eta erreserbarik gabe onartzen dituela, eta aurkez-tutako datuen zehaztasunaren eta obra kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituenaren erantzukizunpeko adierazpena egiten duela.

8. LIZITAZIO PROZEDURA IREKIAN PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA, EPEA ETA MODUA

8.1. AURKEZTEKO LEKUA

“A” gutun-azala: PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Proposamen ekonomikoa webgunearen bitartez aurkeztu beharko da, http://www.gipuzkoakour.eus/proveedores_login/Login.aspx helbidean, sarbide-gakoak lortu ondoren.

Halakorik ez bada, http://www.gipuzkoakour.eus/proveedores_login/Obras_Publicadas.aspx helbidean eskatu ahal izango dira, obraren informazioa eskatzean, "Dokumentazioa eskatu" botoian.

Proposamen hori ezingo da kontrataziorako onartutako aurrekontua baino handiagoa izan.

Sozietateko teknikariak proposamenak ebaluatuko dituzte, eta egoki irizitako akta eta es-leipen-proposamena igorriko dizkiote Kontratazio Organoari.

“B” gutun-azala: JARDUTEKO GAITASUNA

"B" gutun-azalak, Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 146. ar-tikuluaren baitako dokumentuak jasoko ditu.

Kanpoan identifikatua egongo da, zein lizitaziotan parte hartzen duen adierazita eta lizi-tatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, eta enpresaren izen-abizenak edo sozietate-izena, telefonoa eta helbidea adierazita. Gutun-azal bakoitzaren barruan, orri independente batean jasoko da haren edukia, zenbaki bidez adierazita.

Dokumentazioa aurkeztu edo bidali ondoren ezin da atzera egin, proposamena bertan behera uztea justifikatuta ez badago.

Gipuzkoako Uren Erregistroan aurkeztu beharko da (Portuetxe kalea, 16, 1. solairua, Donostia) edo postaz, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 80.4 artikulua ezartzen duen moduan. Kasu horretan, enpresariak posta bulegoan bidalketa zein egunetan egin duen justifikatu beharko du, eta organoari egun berean jakinaraziko dio eskaintza bidali duela telex, fax edo telegrama bidez.

Bidalketaren abisua posta elektronikoz egingo da tpenalba@gipuzkoakour.eus helbidera, eta baliozkoa izango da bidali dela, jaso dela, hauen datak eta komunikazioen eduki osoa jasota baldin badaude, eta bidaltzailea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzen badira.

Bi baldintza horiek bete ezean, proposamena ez da onartuko baldin eta kontratazio-organoak iragarkian adierazitako epea amaitu eta gero jasotzen badu.

Horrez gain, egun horretatik hamar egun natural igaro ondoren proposamena jaso ez bada, ez da inola ere onartuko.

Eskaintza eskaeraren datan Gipuzkoako Urak HOMOLOGATUTAKO enpresek ez dute B gutunazaleko dokumentazioa aurkeztu beharko eskaintzen aurkezpen unean.

JARDUTEKO GAITASUNA

Pertsona juridikoek, lizitaziorako onartuak izateko, beren estatutuen edo sortze-arauen bidez egiaztatu beharko dute kontratu honen xede diren prestazioak beren helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan daudela.

A. Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitzaileak eta Estatuko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitzaileak

Honakoa aurkeztu beharko dute:

- Erregistro Ofizialeko organo arduradunaren ziurtagiria, ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu adierazten duen lizitzailearen erantzukizunpeko adierazpenarekin batera.
- Obra egiteko erabiliko den makineria, materiala eta ekipo teknikoa adierazten duen adierazpena, dagozkion egiaztagiria erantsita.
- Lizitzailearen helbide elektroniko bat, Gipuzkoako Urak, S.A.k lizitzaileari jakinarazpenak eta komunikazioak egin diezazkion.

B. Aurreko egoeran ez dauden lizitzaileak

“B” gutunazalean ondorengo dokumentuak sartu beharko dituzte:

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, 60. artikuluan ezarritako kontratatze debekuetariko batean barneratua ez dagoenaren erantzukizunpeko adierazpen espresua.
- Aurreko paragrafoan aipatutako erantzukizunpeko adierazpenak berariaz jasoko du indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

(KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA)

- Lizitazio-aurrekontuaren zenbateko bereko edo handiagoko arrisku profesionalengatik kalte-ordainen aseguru bat dagoela egiaztatzen duen agiria.

(KAUDIMEN TEKNIKOA)

- Lizitzaileak antzeko obretan izandako esperientzia egiaztatu beharko du, gutxienez azken 5 urteetan horniduran eta saneamenduan, 200.000 euroko edo gehiagoko gauzatze materiala duten bi obra-erreferentzia aurkeztuta. Erreferentzia horiek

izan ezean, sailkapen honekin ordezkatu ahal izango da: E TALDEA: OBRA HIDRAULIKOAK, 1 AZPITALDEA.

- Obra egiteko erabiliko den makineria, materiala eta ekipo teknikoa adierazten duen adierazpena, dagozkion egiaztagiriak erantsita.
- Lizitzailearen helbide elektronikoa bat, Gipuzkoako Urak, S.A.k lizitzaileari jakinarazpenak eta komunikazioak egin diezazkion.

Aipatutako agirietako edozein falta bada, edo aurreko ataletan aurreikusitakoak zorrotz betetzen ez badira, eskaintza ez onartzea ekar dezake.

C. Aldi baterako enpresa-elkartea

Sozietateak, horretarako eratu diren aldi baterako enpresa-elkartek kontratatu ahal izango ditu, ez delarik beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta haien aldeko esleipena egin arte.

Enpresaburu horiek solidarioki behartuta egongo dira Gipuzkoako Uraken aurrean, eta proposamen-idazkian honako hauek adierazi beharko dituzte parte hartu nahi duten enpresaburuek:

- Kideen izenak eta inguruabarrak.
- Horietako bakoitzak aldi baterako elkartean duen parte hartzea.
- Esleipendunak izanez gero, aldi baterako enpresa-elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartzea.
- Elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatzea, kontratua amaitu arte kontratuaren ondorioz sortzen diren eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko ahalmen nahikoak izango dituen; hala ere, kopuru handiko kobrantza eta ordainketetarako ahalorde mankomunatuak egon daitezke.

Enpresaburuen aldi baterako elkartzeetan, elkarte osatzen duen kide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, agiri honetan ezarritakoaren arabera, eta aldi baterako elkartearen kaudimena zehazteko, elkarte osatzen duten kide bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira, sailkapenari dagokionean urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 52. artikulua sailkapenari dagokionez ezartzen duenaren kalterik gabe.

Ezin izango da proposamenik sinatu aldi baterako enpresa-elkarte batean, banaka egin badu, eta ezingo da aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu. Printzipio hori urratuz gero, ezetsi egingo dira berak aurkeztutako eskaintza guztiak.

Nolanahi ere, oinarrizko betekizuna izango da aldi baterako enpresa-elkarteko kide bakoitzaren ezaugarriak metatzeko eta, zehazki, bere sailkapenerako, baldin eta pleguan eskatzen bada, kontratuaren lizitazioan parte hartzen duten enpresa guztiak alde aurretik obra-enpresa gisa sailkatuta egotea, Europako Erkidegoko estatu kideetako enpresa ez espainiarrak direnean salbu; kasu horretan, aldi baterako elkartearen kaudimen zehatza baloratzeko, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 15.2, 16 eta 17. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

Aldi baterako enpresa-elkartearen iraupena bat etorriko da kontratuaren iraupenarekin, amaitu arte.

8.2. EPEA

Bulegoko orduen barruan eta lizitazio-iragarkian eskaintzak aurkezteko adierazitako eguneko 15:00ak arte.

9. PROPOSAMENAK IREKITZEA

"A" gutun-azalak modu telematikoan irekiko dira, lehiakideen proposamen ekonomikoak baloratzuz eta goranzka ordenatuz (lehen postuan eskaintza merkeena).

Ondoren, jarduteko gaitasunari buruzko dokumentazioa duten gutun-azalak irekiko dira, "B" gutun-azala.

Horretarako azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 146. artikuluan aipatzen den dokumentazioa duten gutun-azalak irekiko dira.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak antzemaneraz gero, e-mailez jakinaraziko zaie interesdunei, gehienez hiru egun balioduneko epea emaneraz horiek zuzentzeko. ZUZENDU EZIN DIREN akatsak edo omisioak dituzten lehiakideak ezabatu egingo dira.

Kontratazio Mahaiak, egoki deritzon txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Jarraian, Kontratazio-Mahaiak esleipen-proposamen arrazoitua jaulkiko dio Kontratazio-Organuari.

10. KONTRATUAREN ESLEIPENA

Kontratazio Mahaiaren txostena ikusita, Administrazio Kontseiluak kontratua esleituko du.

11. BERMEAREN ERAKETA

100.000 eurotik gorako esleipen-zenbatekoa duten obretarako, kontratuaren esleipendunek esleipenaren zenbatekoaren, BEZik gabe, %5eko bermea eratu dutela egiaztatzen beharko dute 10 egun balioduneko epean, kontratatzailearen profilean esleipena argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Berme hori ondoko bideetako bat erabiliz eratu beharko da:

- a) Eskudirutan edo zor publikoko baloreetan, kasu bakoitzean arauzko baldintzak betez. Eskudirua eta balore idatzien ibilgetze ziurtagiriak sozietatearen diruzaintzan gordeko dira.
- b) Espainian jarduteko baimena duten banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituko finantza-establezimendu eta elkarren bermerako sozietateetako batek emandako abalaren bidez, arauzko modu eta baldintzetan. Eredua agiri honen IV. eranskinean dago.
- c) Kauzio-arloan jarduteko baimena duen aseguru-erakunde batekin egindako kauzio-aseguruaren kontratu bidez, arauzko modu eta baldintzetan. Eredua agiri honen V. eranskinean dago.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, parte hartzen duten enpresetako batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte bermeak, baldin eta eskatutako zenbatekoa osotasunean lortzen badute eta aldi baterako elkarteko kide guztiak solidarioki bermatzen badituzte

Kontratista ez den beste pertsona edo erakunde batzuek haren alde emandako bermeei, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikuluan araututako araubidea aplikatuko zaie.

Esleipendunak nahitaez ordaindu beharko ditu lizitazio-iragarkiaren eta kontratuaren formalizazioaren gastuak, bai eta indarreko xedapenen arabera aplikatzekoak diren beste gastu guztiak ere, xedapen horietan adierazitako moduan eta zenbatekoan.

12. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, behin lizitatzaileri eta esleipendunari adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik 15 egun balioduneko epea igarotakoan.

Kontratua sinatzearekin batera, esleipendunak Plegu hau eta Baldintza Teknikoen Plegua edota Proiektua sinatu beharko ditu, bai eta kontratuaren dokumentazio guztia ere, halakorik badago, eta kontratuaren parte izango da.

13. ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINEN ARLOKO BETEBEHARRAK

- 1) Araudi aplikagarrian aurreikusitako betebeharez gain, lanak hasi aurretik, obra gauzatzen duen pertsona fisikoak edo juridikoak plan bat aurkeztu beharko dio obraren jabeari, obran sortuko diren eraikuntza- eta eraispén-hondakinei dagokienez dituen betebeharrak nola gauzatuko dituen islatzeko; bereziki, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren 4.1. artikulua eta 5. artikulua jasotakoetan.
- 2) Plana, behin zuzendaritza fakultatiboak eta jabetzak onartu ondoren, obraren kontratu-agirietan sartuko da.
- 3) Betebehar horiek ez betetzeak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 212. artikuluan aurreikusitako zigorra ezartzea ekarriko du, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik.
- 4) Zigorra, ez-betetzearen larritasunaren arabera izango da, proportzionaltasun-irizpidearen arabera.

14. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDITASUNERAKO BALDINTZAK

Kontratatistak bermatuko du, kontratua gauzatzean, dokumentazioa, publizitatea, irudia edo materialak sexismorik gabe erabiliko direla, eta emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak saihestuko direla, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate aniztasunaren balioak dituen irudia sustatuko dela.

Kontratatistak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu.

250 langile baino gehiago dituen enpresa kontratatistak emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat duela justifikatu beharko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako edukiarekin.

15. SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA EGITEA

Segurtasun- eta osasun-azterlana edo, hala badagokio, proiektuan dagoen oinarriko azterlana aplikatuz, enpresa esleipendunak hamar egun balioduneko epea izango du, esleipena kontratazio-organoaren kontratatzailearen profileen argitaratu eta hurrengo egunetik hasita,

obra gauzatzeko sistema propioaren arabera segurtasun- eta osasun-azterlanean edo oinarriko azterlanean jasotako aurreikuspenak aztertu, analizatu, garatu eta osatuko dituen laneko segurtasun- eta osasun-plan bat egiteko. Plan horretan jasoko dira, hala badagokio, kontratistak dagokion justifikazio teknikoarekin proposatzen dituen prebentzio-neurri alternatiboen proposamenak, proiektuaren oinarriko azterketan edo azterlanean aurreikusitako babes-mailak ezingo dituztelarik murriztu.

Segurtasun- eta osasun-azterlana aplikatuz egindako segurtasun- eta osasun-planen kasuan, prebentzio-proposamen alternatiboek horien balorazio ekonomikoa jasoko dute, horrek ezingo duelarik eragin zenbateko osoa edo azterlanean jasotako babes-mailak murriztea. Enpresa esleipendunak egindako segurtasun- eta osasun-plana sozietateak onartuko du obra hasi aurretik, obran segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailearen edo, koordinatzailearen esku hartzea beharrezkoa ez den kasuetan, Zuzendaritza Teknikoaren aurretiazko txostenarekin

Kontratistak segurtasun- eta osasun-plana aldatu ahal izango du, obra gauzatzeko prozesuaren, lanen bilakaeraren eta obran zehar sor daitezkeen aldaketan arabera, baina betiere aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera berariazko onepenenarekin.

Obra gauzatzen parte hartzen dutenek, bai eta obran esku hartzen duten enpresetako prebentzio-arloan erantzukizuna duten pertsonak edo organoak eta baita langileen ordezkariak ere, idatziz eta modu arrazoituan aurkeztu ahal izango dituzte egoki irizitako iradokizunak eta alternatibak. Horretarako, segurtasun- eta osasun-plana obran, langileen eta zuzendaritza faktatiboaren eskura, egongo da etengabe.

Ezingo da obra hasi Gipuzkoako Urak Segurtasun eta Osasun Planaren aurretiko onarpena eman gabe.

16. ARRISKUA ETA MENTURA

Kontratua kontratistaren mentura arriskuarekin gauzatu da, eta honek ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan izandako galera, matxura edo galerengatik. Kontratistaren kontura izango dira obrak gauzatzeak eskatzen dituen ekintzen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte guztiak.

17. ASEGURUAK

Esleipendunak honako aseguru-poliza hauek kontratatu behar ditu bere kontura, eta indarrean mantendu kontratua exekutatu bitartean:

- Eraikitze- eta berme-aldian obrek jasan ditzaketen kalteak, esleipenaren zenbatekoaren mugaraino, ohiko arriskuen ondorioz.
- Eraikuntzako arrisku orotako poliza, eraikitze- eta berme-aldian obrek jasan ditzaketen kalteak estaltzen dituen, esleipenaren zenbatekoaren mugaraino, BEZik gabe.
- Erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua), hirugarren pertsonari eragindako kalteengatik, baldin eta kalte hori langileen, enplegatuen eta mendekoen, bere makinen eta ekipoen ekintzen ondoriozkoa bada, bai eta esleipenaren xede diren obrak gauzatzean egindako lanen ondoriozkoa bada ere. Plantillako langileen eta obran lan egiten duten azpikontratisten lan-istripuetatik erator daitezkeen kalte-galerengatik kalte-ordainak estaltzen dituen Erantzukizun Zibil Patronaleko aseguru, langile bakoitzeko 600.000 eurokoa izan beharko da gutxienez.
- Kontratuaren arabera esleipendunak egiten dituen lan eta zerbitzuei aplikatu dakizkiekeen legezko xedapenak eskatzen duten beste edozein aseguru.

Bermeen zenbatekoak

KONTRATUAREN ZENBATEKOA	BERME MUGA
Hasta 600.000 €	600.000 €
De 600.001 hasta 3.000.000 €	1.500.000 €

Primak egunean dituela egiaztatzen duten polizak eta ordainagiriak Gipuzkoako Urak sozietatearen eskura egongo dira, eskatzen duenean egiazta ditzan.

Aseguru-poliza horiek izenpetzeak ez ditu, inola ere, esleipendunak bere gain hartutako betebeharrak mugatuko edo aldatuko, eta ez dute baldintza-agiri honetan aurreikusitako erantzukizunetatik salbuetsiko.

18. OBRA ZUINKETA EGIAZTATZEA

Obren zuinketa egiaztatzeko, gehienez ere kontratua formalizatzen denetik astebeteko epea egongo da, izapidetze arrunteko espedienteetan. Ezin izango da obra hasi zuinketa egiaztatzeako akta egin gabe.

Zuinketa egiaztatzearen ondorioz proiektua egokia eta bideragarria dela, eta obren zuzendariaren iritziz, lursailen benetako jabetza eta erabilera aukera frogatzen denean, kontratistak erreserbarik egin gabe, lanak hasteko baimena emango da, hau berariaz jasoko delarik egiten den aktan, hau sinatu izanagatik kontratista baimenaz jakinarazitzat hartuko da, eta obrak egiteko epea kontatzen hasiko da, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunetik urrera.

Bestela, aurreko paragrafoan aipatutako inguruabarrak egiaztatzen ez badira, edo teknikari fakultatiboak proiektatutako obrak aldatzea beharrezkotzat jotzen badu edo kontratistak erreserba egiten badu, aktan jasoko da eten egingo dela obren hasiera, harik eta kontratua egin zuen organoak, administrazio-kontratazioaren arloko legeriak emandako ahalmenen barruan, egoki deritzon ebazpena eman arte.

19. LAN PROGRAMA

Kontratistak lan-programa aurkeztu beharko du hamabost egun balioduneko epean, esleipena argitaratu eta biharamunetik hasita. Sozietateak lan-programari buruzko ebazpena emango du, eta aldagetak egitea edo baldintza jakin batzuk betetzea ezarri ahal izango du, betiere kontratuaren klausulen aurkakoak ez badira.

Lan-programak ondorengo datu hauek jaso beharko ditu:

1. Proiektua osatzen duten unitateak obra-zati edo obra-motetan antolatzea, horien neurketak adierazita.
2. Beharrezko baliabideak zehaztea, hala nola langileak, instalazioak, ekipoa eta materialak, berauen batez besteko errendimenduak adierazita.
3. Egutegi-egunetan zenbatestea prestaketa-lanak edo -eragiketak, ekipoak eta instalazioak gauzatzeko epeak, eta obra-zatiak edo -motak gauzatzeko epeak.
4. Programatutako obraren hileko balorazioa eta balorazio metatua, unitateko prezioetan, prestaketa lanak edo ekintzak, ekipoak eta instalazioak eta obra-zatiak edo -unitateak, oinarri hartuta.
5. Orotariko jardueren edo lanen diagrama.

Esleipendunak aurkeztutako plan hori kontratu-dokumentua izango da ondorio guztietarako.

KONTRATUA GAUZATZEA

20. KONTRATUTIK ERATORRITAKO ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Obrak, Plegu honetan ezarritako klausulak, oinarri gisa balio duen proiektua, kontratistak aurkeztutako lan-programa, eta honen interpretazioaren arabera proiektugileak eta, aldi berean, obren zuzendariak, kontratistari emandako jarraibideak zorrotz betez egingo dira. Jarraibide horiek nahitaez bete beharko dira, idatziz egiten badira.

Obrak dirauen bitartean eta harrera egin arte, kontratista da eraikuntzan atzeman daitezkeen hutsegiteen erantzulea.

Obren erabateko gelditzea edo behin betiko etetea arrazoi larriengatik eta Obren Zuzendariak ordezkatzeko duen organo kontratatzailearen oniritziaren bidez baino ezin izango da egiaztatzea.

Laneko betebeharrak betetzea. Kontratista lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak betetzera behartua egongo da.

Kontratistak, segurtasun eta osasunari buruz indarrean dauden xedapenak betetzen direla zaintzeko berariazko eginkizuna duen beharrezko organoa eratu beharko du, eta, lantoki bakoitzerako, dagozkion betebeharrak bere gain hartuko dituen segurtasuneko teknikariak izendatuko ditu.

Kontratistak betebeharrak horiek betetzen ez baditu, edo kontratistak izendatutako teknikariek segurtasunari buruzko xedapenak hausten badituzte, Administrazio kontratatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango.

Obrako bulegoa. Kontratistak, obrak hasi aurretik, eta kontratua gauzatzen den bitartean, obra-bulego bat instalatu beharko du iruditzen zaion tokian, zuzendariaren alde aurreko adostasunarekin.

Agindu-liburua. Kontratistak nahitaez gorde beharko ditu bertan proiektuaren edo oinarriko proiektuen kontratu-agirien kopia baimendua eta agindu-liburua. Horretarako, Gipuzkoako Urak sozietateak agiri horien kopia bat emango dio zuinketa egiaztatzen den data baino lehen.

Agindu-liburuan, obra atxikita dagoen zerbitzuak alde aurretik izapidetuta, egoki irizita-ko aginduak, jarraibideak eta komunikazioak idatziko dira, bere sinadurarekin baimenduko direlarik. Kontratista, bere kabuz edo eskuordetzaren bitartez, jarraibide horien hartu-agiria sinatzera behartua egongo da. Obrak jaso ondoren, agindu-liburua Gipuzkoako Urak sozietatearen esku geratuko da, baina kontratistak uneoro kontsultatu ahal izango du.

Enpresa kontratistaren konturako gastuak. Bereziki, kontratistaren kontura izango dira materialen gastuak, bere langileenak eta zuinketa egiaztatzeko beharrezkoak diren Administrazioaren ordezkarienak.

Kontratistaren ardurakoa eta bere kontura izango dira alta eta funtzionamendu-baimena lortzeko, sareetara eta zerbitzuetara lotzeko, behin-behineko eta behin betiko hartuneak egiteko eta, oro har, instalazioen funtzionamendu egoki eta legeztatua gauzatzeko kudeaketak egitea, gastu, tasa, ariel eta abar guztiak ordaintzea eta erakunde eskudunetan aurkeztu beharreko proiektuak idaztea eta ikus-onestea.

Seinaleztapena. Kontratista, obrarako sarbidea, lanek hartzen duten eremuko zirkulazioa eta lanen martxaren ondoriozko arrisku-puntuak adierazteko, bai eremu horretan, bai haren mugetan eta inguruetan, beharrezko diren seinaleak jartzera behartua dago.

Seinaleztapena elebiduna izango da (euskara/gaztelania). Era berean, obrari buruzko iragarki, kartel edo informazio oro elebitan agertu beharko da. Kontratatistak betebehar hori betetzen ez badu, zigor ekonomikoak ezarriko zaizkio:

1. ez-betetzea 600 €
 2. ez-betetzea 1.200 €
- Gainerakoak 2.400 €

Seinale osagarrien instalazioari edo instalatu dituenen aldaketei buruz Zuzendaritzak idatziz emandako aginduak beteko ditu kontratatistak. Seinaleztapenak eragiten dituen gastuak kontratatistak ordainduko ditu.

Materialen saiakuntzak eta analisiak. Kalitate Kontroleko Aurrekonturik ez duten kontratazio-espeditanteetan, obra zuzendariak obra-materialen eta -unitateen saiakuntzak eta analisiak egin daitezela, eta kasu bakoitzean egoki diren txosten espezifikoak egin daitezela agindu dezake, kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren %2 arte sortzen diren gastuak kontratatistaren kontura izango direlarik.

Obra-unitateen ordezkapenak. Kontratatistak, beti ere idatziz, obra unitate baten ordezkaldintza hobeak dituen beste bat jartzea, kontratatuek baino prestakuntza edo kalitate handiago materialak erabiltzea, obraren edozein zati neurri handiagoarekin egikaritzea edo, oro har, berarentzat onuragarritzat jotzen duen antzeko beste edozein hobekuntza egitea proposatu ahal izango dio obra zuzendaritzari.

Obraren zuzendariak komenigarritzat jotzen badu proposatutako hobekuntza, beharrezkoa ez izan arren, idatziz baimendu ahal izango du, baina kontratatistak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, obra kontratatuari hertsiki lotuta eraiki izan balu legokiokeenaren kobrantzara soilik.

Aitzitik, obraren zuzendariak beharrezkotzat jotzen badu kontratatistak proposatutako hobekuntza, obra-kontratuaren aldaketarako ezarritako moduan jardungo da.

Obren kontserbazioa. Kontratista ez dago obra gauzatzera soilik behartua, baita hauen jaso arteko kontserbazioa egitera ere.

Kontratatistak obran ohartaraz daitezkeen hutsegiteen erantzukizuna izango du, baldin eta falta horiek obra-unitateen kontserbazio desegokiaren edo akastunaren ondorio badira soil-soilik, nahiz eta horiek eraiki eta berehala edo kontratuaren indarraldiko beste edozein unetan Zuzendaritzak aztertuak izan eta ados egon.

Obrak egin bitartean eta berme-epaia bete arte, kontratista da eraikuntzan antzeman daitezkeen akatsen erantzulea.

Etxebizitza, lokal eta finka partikularretarako sarbideak. Obrak egiteagatik finka partikularretako sarbideei eragitea beharrezkoa bada, sarbide horiek beti operatibo mantendu beharko dira, segurtasun-baldintza egokietan eta erabiltzailearentzat ahalik eta erosoan.

Kasu berezietan, eta interesdunekiko alde aurretiko jakinarazpen eta entzunaldiarekin, aldi baterako eten ahal izango dira sarbide horiek, baldin eta etenaldi hori eragindako finkaren erabiltzaileek beren gain hartu ahal badute.

Obren garbitasuna. Obra-eremua eta haren inguruaren behar bezalako garbitasuna bermatuko da beti, hasiera batean, ez zikintzen saiatuz, horretarako beharrezko baliabideak izango direlarik, hala nola ibilgailuak garbitzeko sistemak, hautsik sortzen ez duten ebaketa-sistemak edo zoladurak biltegian moztuz, eta abar, eta halakorik gertatuz gero, egunero garbitu beharko dute obraren eremu hesigabea eta ingurua.

21. AZPIKONTRATAZIOA ETA KONTRATU LAGAPEN

1. Kontratuaren izaeragatik eta baldintzengatik esleipendunak zuzenean exekutatu behar duela ondorioztatzen ez bada, esleipendunak hirugarrenekin itundu ahal izango du kontratuaren zati bat gauzatzea.
 - A. Azpikontratuak egiteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 227. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira.
 - B. Esleipendunak hirugarrenekin azpikontratatu dituen prestazio partzialek ez dute kontratuaren aurrekontuaren %50 gaindituko.
2. Kontratuaren prestazio partzialak azpikontratatea baimentzen bada, esleipendunak alde aurretik eta idatziz jakinarazi beharko ditu sozietatearen erregistro orokorrean azpikontratua egiteko asmoa eta azpikontratatuen nortasuna, azpikontratatuen gaitasuna justifikatuz, dituen elementu teknikoak eta giza baliabideak eta bere esperientzia egiaztatuz, azpikontratatuen indarrean dagoen eta dagokion azpikontratuaren zatia egiteko egokia den sailkapena duela egiaztatzen denean salbu.

Azpikontratatuen gaitasunen egiaztapena azpikontratua egin eta berehala egin ahal izango da, baldin eta hau beharrezkoa bada larrialdi-egoera bati aurre egiteko edo premiazko neurriak hartzea eskatzen bada eta behar bezala justifikatzen bada. Paragrafo honetan xedatutakoa betetzen ez bada, azpikontratuaren zenbatekoaren %10eko baliokidea den zigor baten ezarpena eragingo du.

Esleipendunek beren eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 226. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

22. KONTRATISTARI EGINDAKO ORDAINKETAK

Obra-zuzendaritzak aurreko denboraldian gauzatutako obra-unitateak neurtuko ditu aldirik, preskripzio tekniko berezien agirian ezarritako moduan eta baldintzetan.

Geroago eta behin betiko ezkutuan utzi behar diren neurriak eta ezaugarriak dituzten obretarako edo obra-zatietarako, kontratatuek behar besteko aurrerapenaz jakinarazi behar dituzte zuzendaritzari, dagozkion neurketak egin eta datuak hartu ahal izan dituzten, eta hura definitzen duten planoak egin behar dituzte, kontratatuek edo ordezkariak hauekiko adostasuna sinatuko direlarik.

Obraren zuzendariak, aipatutako neurketak eta kontratatutako prezioak oinarritzat hartuta, dagokion jatorrizko zerrenda baloratua idatziko du hilero, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 148. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Baloratutako zerrenda izapidetzearekin batera, obra-zuzendaritzak ale bat bidaliko dio kontratatari, bere adostasuna edo eragozpenak adieraz ditzan. Kontratistak egokitzen dituzten alegazioak egin ahal izango ditu, aipatutako dokumentua jaso eta 10 egun balioduneko epean.

Epe horretan kontratistak alegaziorik aurkezten ez badu, baloratutako zerrendarekiko adostasuna eman dela ulertuko da.

Bestela, eta kontratistaren alegazioak osorik edo zati batean onartzen badira, kontuan hartuko dira hurrengo balorazio-zerrenda idazterakoan, edo, hala badagokio, azken ziurtapeanean edo kontratuaren likidazioan.

Ordainketei dagokienerako, obraren zuzendariak, balioetsitako zerrenda oinarri hartuta, gauzatutako obra jasotzen duten ziurtapenak luzatuko ditu, non, azken neurketetako zuzenketei eta aldaketei lotutako konturako abonuen kontzeptua izango duten, eta ez duten, inola ere, hauei dagozkien obraren onarpena eta jasotzea suposatuko.

Obra behar bezala egiteko eta amaitzeko beharrezkoak diren lan, bitarteko osagarri edo material guztiak, prezioan sartuta daudela ulertuko da, nahiz eta horiek guztiak ez agertu prezioen deskonposizioan edo deskribapenean.

Beren kontzeptuagatik zeharkako kostuekin pareka daitezkeen gastu guztiak proiektuaren obra-unitateen prezioetan sartutzat joko dira, aurrekontuan obra-unitateetan edo oroharreko partidetan baloratuta agertzen ez direnean.

Kontratistak ez du bere konturako ordainketarik jasotzeko eskubiderik izango egindako prestaketa-lanengatik, hala nola obrari atxikitako materialak pilatzeagatik edo makineria astunak instalatzeagatik, karatulako 13. puntuan ezarritako baldintzetan eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 155., 156. eta 157. artikuluetan zehaztutako araubide, muga eta bermeekin bat etorritik.

23. ESLEIPENDUNAREN EZ BETETZEAK

Esleipendunak kontratu honetan edo gainerako kontratu-agirietan ezarritako edozein betebeharrak betetzen ez badu, kontratua desegin ahal izango da, esleipendunak eragindako kalte-galeren konpentsazio kalte-ordain egokiarekin.

Esleipenaren jakinarazpenetik 30 egun natural igaro ondoren, kontratistari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, obrari hasiera eman ez bazaie, Gipuzkoako Urak aukera ahal izango du kontratua desgitea edo obra hasiera atzeratzen den aste bakoitzeko ASTEKO 1.000 €-ko zigorra ezartzea.

Era berean, Gipuzkoako Urak S.A.-k ESLEIPEN-AURREKONTUAREN %2ko zenbatekoaren zigorra eurotan + ASTEKO 1.000 €-ko zigorra ezarri ahal izango dio esleipendunari, Obra Zuzendaritzak bere eskumeneko gaitan emandako jarraibideak edo arauak ez betetzeagatik. Zigor honek zigor-klausula metagarri izaera izango du, hau da, kalte-galeren ordainei eragin gabe sortuko da halakorik balego, eta, hala badagokio, obraren likidaziotik deskontatuko da.

Eskaintzan ezarritako epeak betetzen ez badira, kontratistari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, Gipuzkoako Urak sozietateak aukeran izango du kontratua desgitea edo goian adierazitako zigorra aplikatzea.

Bi alderdiek itundutako zigorra onartzen dituzte, eta berriaz uko egiten diote moderazioa eskatzeari, bidezkoak eta kontratu honen inguruabarretarako egokiak direla uste dutelako.

24. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratu-aldaketei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 5. tituluko 105.etik 107.era bitarteko artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

25. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dago prezioen berrikuspenik. Onartutako eskaintza indarrean egongo da prezioak berrikusi gabe kontratuaren indarraldi osoan.

26. PREZIOAK

Kontratu hau onartzeak berekin dakar bi alderdiek kontratistak partida bakoitzerako eskaintako prezio unitarioak onartzea. Suerta daitezkeen ezustekoetarako, Gipuzkoako Uraken Prezio Unitarioen Oinarrian adierazitako prezio unitarioak aplikatuko dira, kontratistak obra honetarako eskaintako bajaren % aplikatuta.

Kontratu hau sinatzen denetik obrak amaitu arte, ezingo da inolako aldaketarik egin ezarritako prezioetan.

KONTRATUAREN AMAIERA

27. OBREN HARTZEA

Kontratistak edo haren ordezkariak, hamabost egun baliodun lehenago, idatziz jakinaraziko dio zuzendaritza teknikoari obra amaitzeko aurreikusitako data, hartzea egin ahal izateko.

Obren zuzendariak, aipatutako kontratistaren jakinarazpenarekin bat etorri gero, Gipuzkoako Urak sozietateari igorriko dio, bere txostenarekin batera, obra amaitu baino 10 egun natural lehenago, honek obren hartzea egiteko ordezkari bat izenda dezan eta kontu-hartzailetzari egintza horren berri eman diezaion, nahitaezkoa denean, inbertsioa egiaztatzeko eginkizunetan bertaratzeko aukerako izan dezan.

Hartzea obrak amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan egingo da, eta kontratistak obraren zuzendaritzari jakinaraziko dio. Hartzeari dagokion akta luzatuko da, eta aktan parte hartzen duten guztiek sinatuko dute.

Obrak egoera onean eta aurreikusitako aginduen arabera badaude, teknikariak eta haren ordezkariak hartutzat joko ditu, dagokion akta egingo delarik eta, orduan, berme-epea hasiko da.

Obrak ez badaude hartzeko moduan, hala jasoko da aktan, eta obren zuzendariak antzemandako akatsak adieraziko ditu eta jarraibide zehatzak zehaztuko ditu, hauek konpontzeko epe bat utziz. Epe hori igaro eta kontratistak ez badu halakorik egin, beste epe luzaezin bat eman ahal izango zaio, edo kontratua desegintzat jo.

28. AZKEN ZIURTAPENA

Obrak hartu ondoren, obra-zuzendariak hauen neurketa orokorra egingo du, kontratista bertan dela, eta, hartzea egin eta hilabeteko epean, proiektuaren arabera benetan gauzatutako obrak neurtuko direlarik. Horretarako, hartze-aktan, obraren zuzendariak neurketa hori hasteko data ezarriko du, eta kontratista egintza horretarako jakinarazita geratuko da.

Neurketa orokorra egiten den egunean, kontratistak ondorengo dokumentazioa entregatu beharko du:

- Paperezko planoak, proiektu-kartografiaren gainean AutoCADen irudikatuta, egindako hornidura- edota saneamendu-eroanbideak fidelki islatzen dituztenak (maldak,

materialak, diametroak, sakonera), indarrean dagoen erregelamendu teknikoan zehaztutako betekizunekin.

- Egindako hobien kokapen-oinplanoa paperean, baita zerbitzuekin egindako gurutzaketenak edota obraren neurketa orokorra egitean ikusten ez den beste edozein obra-unitaterenak ere.
- Egindako hobien irudiak (argazkiak), baita zerbitzuekin egindako gurutzaketenak edota obraren neurketa orokorra egitean ikusten ez den beste edozein obra-unitaterenak ere.

Obra amaierako ziurtapena urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 166. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

Obrak behar bezala egin direla egiaztatu ondoren, dagokion proiektuan edo, halakorik ezean, indarrean dagoen erregelamendu teknikoan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Urak sozietateak sareen behin-behineko onarpena egin ahal izango du, horretarako, honako hauek jaso beharko dira:

- Obraren sortutako eraikuntza- eta eraispent-hondakinen kudeaketa zuzena justifikatzeko dokumentazioa.

Sareen behin-behineko onarpenak ez du salbuesten ezarritako bermea betetzetik; beraz, hornidura- eta saneamendu-sareetan antzemandako akatsak esleipendunaren kontura zuzendu beharko dira berme-aldian.

29. BERME EPEA

Berme-epea igarotakoan, kontrakoa esanbidez xedatu ezean, urtebeteko iraupena izango du (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren arabera), eta akats aipagarriak ez badago, sareen behin betiko onarpenari ekingo zaio.

Berme-epea bete aurreko 15 eguneko epearen barnean, zuzendari teknikoak, ofizioz edo kontratistak eskatuta, obraren egoerari buruzko txostena idatziko du. Hau aldekoa bada, kontratistari erantzukizun oro kenduko zaio, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 236. artikuluan xedatutakoa izan ezik.

Txostena aldekoa ez bada eta ikusitako akatsak obra gauzatzean izandako akatsen ondorio badira, eta ez eraikitakoa erabiltzearen ondorio, zuzendari teknikoak berme-epean beharrezko jarraibideak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpon dezan, horretarako epe bat emanez, eta epe horretan, obrak kontserbatzeaz arduratuko delarik, berme-epea luzatzeagatik inolako kopururik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

30. OBREN LIKIDAZIOA

Berme-epea igarota, obraren zuzendariak obraren egoerari buruz egindako txostena aldekoa bada, edo, bestela, eraikitakoa konpondu ondoren, zuzendariak hilabeteko epean benetan egikaritutakoen likidazio-proposamena egingo du, balorazioa egiteko kontratuan ezarritako baldintza ekonomikoak hartuko dira oinarritzat. Likidazio-proposamena kontratistari jakinaraziko zaio, hamar eguneko epean adostasuna eman dezan edo egokitzen jotzen dituen eragozpenak adieraz ditzan.

Kontratistak erantzuten duenetik edo ezarritako epea igarotzen denetik hirurogei eguneko epean, kontratazio-organoak likidazioa onartuko du eta, hala badagokio, falta den saldoa ordainduko du.

31. BERMEA ITZULTZEA

Berme-epeak irauten duen bitartean, kontratista arduratuko da obren kontserbazioaz eta zaintzaz, pleguetan aurreikusitakoaren arabera eta obren zuzendariak emandako jarraibideen arabera. Kontserbazioa zaintzen ez badu eta obra arriskuan jartzen bada, Gipuzkoako Urak sozietateak egingo ditu, kontratistaren kontura, kaltea saihesteko beharrezkoak diren lanak.

Kontratuaren likidazioa onartu ondoren, bermearen gainean gauzatu beharreko erantzukizunik ez badago, eta bermearen epea igarota, hala badagokio, bermea itzultzeko edo abala ezerezteko erabakia hartuko da.

32. EZKUTUKO AKATSEN ERANTZUKIZUNA

Berme-epea amaitu ondoren kontratistak kontratua ez betetzeagatik eragindako eraikuntzako ezkutuko akatsengatik edo defektuengatik obra hondatzen bada, kontratistak izango du kalte-galeren erantzukizuna hamar urteko epe batez, obra harreratik zenbatzen hasita.

33. JURISDIKZIO ESKUDUNA ETA LEGE-EREMUA

Auziren bat gertatuz gero, bi aldeek adosten dute Donostiako epaitegietara jotzea, kontratistak legokiokeen beste edozein foru edo eskumeni uko eginez.

Kontratu honek izaera pribatua du eta jurisdikzio zibila da honetaz arduratzeko jurisdikzio eskuduna.

ATZERRIKO ENPRESEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako enpresa ez-espainiarrek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute "B" gutun-azalean:

1. Banakako enpresek beren herrialdeko nortasun-agiri pertsonala aurkeztu beharko dute. Enpresa pertsona juridikoa bada, eraketa-agiriak aurkeztu beharko ditu, gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulita, eta lanbide- edo merkataritza-erregistro batean inskribatuta, dagokion estatuko legeriak betekizun hori eskatzen duenean.
2. Lizitatzailak bere izenean jarduten ez badu edo pertsona juridikoa bada, ahalorde nahikoa aurkeztu beharko du, gaztelaniara edo euskarara itzulita.
3. Dagokion herrialdean duen Espainiako enbaxadak emandako despatxua, bere herrialdeko legeriaren arabera kontratatzeke eta bere burua behartzeko gaitasun osoa duela ziurtatzen duena.
4. Kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako Espainiako edozein mailako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen adierazpen solemnea, eta, hala badagokio, lizitatzailari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egitea.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, enpresaburu nazionalak eta Europako Erkidegokoak ez diren atzerriarrak edo Europako Erkidegokoak diren atzerriarrak elkartzten bada, lehenengo biek sailkapena egiaztatu beharko dute, eta azken biek, sailkapenik ezean, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala. Espainiarrak ez diren estatu kideko enpresaburuei sailkapena eskatzen bazaie, nahikoa izango da kaudimen teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzea, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, bai eta ezarrita dauden herrialdeko legerian aurreikusitako baldintzetan lanbide- edo merkataritza-erregistroetan inskribatuta egotea ere, betiere sailkatuta ez badaude, eta sailkapena etenda edo baliogabetua ez badu.

Europako Erkidegoko estatu kideek beren enpresaburuen alde egindako sailkapen-ziurtagiriak edo antzeko dokumentuak kontratazio-organo ezberdinen aurrean gaitasun-presuntzioa adierazten dute, 16.1 artikuluko b) eta c) idatz-zatiei, 17. artikuluko b) eta d) idatz-zatiei eta 20. artikuluko a), b), d) eta e) idatz-zatiei dagokienez.

Europako Erkidegokoak ez diren estatuetakoko pertsona fisiko edo juridikoek, azal dutako betekizunez gain, honako hauen bidez egiaztatu beharko dute:

1. Jarduteko gaitasuna, kasuan kasuko Espainiako diplomazia-ordezkaritzak emandako txostenaren bidez, bertan tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoan inskribatuta daudela, edo, halakorik ezean, kontratuaren xede diren jardueren esparruan tokiko trafikoan ohikotasunez jarduten dutela, jasoko delarik.
2. Espainiako ordezkaritza diplomatikoaren txostena, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak Gipuzkoako Urak, S.A. rekiko kontratazioan enpresa espainiarren parte hartzea onartzen duela adierazten duena, funtsean antzeko eran.
3. Obra-kontratuen kasuei dagokienez, beharrezkoa izango da, gainera, enpresa horiek Espainian sukurtsal bat irekita izatea, beren eragiketarako ahalduak edo ordezkaritza izendatuta.
4. Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, baita aurreko paragrafoan aipatutako ahalordetzeak ere.
5. Obra-, hornidura-, aholkularitza- eta laguntza-kontratuetan, eta zerbitzu-kontratuetan, baldin eta horien zenbatekoa ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 135.1, 177.2 eta 203.2 artikuluetan adierazitakoaren berdina edo handiagoa bada, elkarrekotasun-txostena alde batera utzi beharko da, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoko enpresei dagokienez, Espainiako ordezkaritza diplomatikoren edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren, estatu sinatzailearen izaerari buruzko txostenaz ordezkatuko delarik.
6. Ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 20.a), b), c), d), e), g), h), i), j), k) artikuluan zerrendatutako debekuetan sartuta ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.
7. Estatu kideko agintaritza eskudunak emandako ziurtagiria, ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulia, enpresak botere esleipendunaren herrialdean indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duena.

34. KLAUSULA. Datu pertsonalen babesa.

Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Gipuzkoako Urak SA da, IFK A-20471462, posta helbidea Portuetxe kalea 16 - Blanca Vinuesa eraikina 1, 20018- Donostia/San Sebastián eta helbide elektronikoa: lop@gipuzkoakour.eus dituen.

Datuak Gipuzkoako Urak sozietateak enpresa esleitzailerik gisa irekitako kontratazio-espeditanteetan parte hartzeko kontratatzailearen profilean izena emanda dauden pertsonen zerrenda kudeatzeko asmoz erabiltzen ditugu, eta enpresa lizitatuak aurkeztutako proposamenetan sartutako langileen datuak kudeatzeko, legeko betebeharrak betetz (Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren 6.1.c artikulua), zehazki, Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legea eta Uraren, energiaren, garraioaren eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko 31/2007 Legea.

Emandako datu pertsonalak tratamendu honen esparruan aplikagarriak diren eta legez ezarrita dauden erakundeei soilik jakinaraziko zaizkie, eta ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

Datu pertsonalak dituzten lizitazio- eta kontratazio-espeditenteak esleipen-prozesua eta ondoriozko jarduketak amaitu arte gordeko dira, eta, ondoren, blokeatu egingo dira, egoera horretan egongo direlarik sor litezkeen erreklamazioei edo zerga-legeria aplikagarriari buruzko preskripzioei dagokien aldian. Blokeatutako datuak langile baimenduek baino ezingo dituzte eskuratu.

Edonork du eskubidea Gipuzkoako Urak, S.A. berari dagozkion datu pertsonalak tratatzen ari den egiaztatzeke eta bere datu pertsonalak eskuratzeko. Halaber, datu okerrak zuzentzeko eskatzeko eskubidea du, edo, hala badagokio, datuak ezabatzeko eskatzekoa, besteak beste, datuak bildu ziren helburuetarako jada beharrezkoak ez direnean.

Egoera jakin batzuetan, interesdunek beren datuen tratamendua mugatzea eskatu ahal izango dute, kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo defendatzeko baino ez ditugu gordeko.

Egoera jakin batzuetan, eta beren egoera partikularrarekin zerikusia duten arrazoiengatik, interesdunek beren datuen tratamendua ukatu ahal izango dute. Kasu horretan, GIPUZKO-AKO URAK, S.A.k datuak tratatzeari utziko dio, legezko premiazko arrazoiengatik izan ezik, edo erreklamazioak egin edo defendatu ezean.

Interesatuek datuen eramangarritasuna eskatu ahal izango dute, Gipuzkoako Urak, S.A.ri eman dizkieten datuak formatu egituratuan, erabilera komunean eta irakurketa mekanikoan eskuratzeko, beren kabuz deskargatzeko edo Gipuzkoako Urak, S.A.k beste erakunde bati helarazteko.

Interesdunak bere eskubideak baliatu ahal izango ditu, eta, horretarako, eskubidea bidali beharko du gorago adierazitako posta-helbidera edo helbide elektronikora. Eskaera-eredu bat dago gure pribatutasun-atarian: www.gipuzkoakour.eus

Pertsonak uste badu bere eskubideak ez direla behar bezala artatu, eskubidea du datuak babesteko agentzia eskudunean erreklamazioa aurkezteko.

Datuak konfidentziasunez tratatuko dira, eta segurtasun-neurri tekniko eta antolamendu-neurri egokiak bete beharko dira datuak aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe eskuratzeko saihesteko.